

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LANTARONGO UDALA

Onespena ematea COVID-19k eragindako osasun krisia kudeatzeko alarma egoera deklaratzearen ondorioz jarduerak etenda izan dituzten norberaren konturako langileentzako edo langile autonomoentzako laguntzen deialdiari eta oinarri arautzaileei

Udal honek, 2020ko maiatzaren 28an egindako osoko bilkura berezian, onespena eman zien COVID-19k eragindako osasun krisia kudeatzeko alarma egoera deklaratzearen ondorioz jarduerak etenda dituzten norberaren konturako langileentzako edo autonomoentzako laguntzen oinarri arautzaileei eta deialdiari. Horri buruz hartutako erabakia betez, argitara ematen dira objektibotasun, lehia eta publizitate printzipioak bermatzeko.

COVID-19K ERAGINDAKO OSASUN KRISIA KUDEATZEKO ALARMA EGOERA DEKLARATZEAREN ONDORIOZ JARDUERAK ETENDA DITUZTEN NORBERAREN KONTURAKO LANGILEENTZAKO EDO AUTONOMOENTZAKO LAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK

COVID-19 koronabirusaren bilakaerak sortutako ezohiko egoeraren ondorioz, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua onetsi da. Errege dekretu horren bidez, COVID-19k eragindako osasun krisiaren egoera kudeatzeko alarma egoera deklaratu da eta zenbait neurri ezartzen dira herritarren osasuna eta segurtasuna babesteko. Neurri horien ondorioz, urruntze fisikoa ezarri da eta pertsonen eta gure herrialdeko gizarte eta ekonomia jardueren mugikortasuna murriztu eta mugatu dira, 19 hedatzea eragozten eta osasun publikoen sistema indartzen laguntzeko.

Osasun krisi horrek zuzenean eragiten dio ekonomiari, eta hartutako neurriek berehalako eragina dute, etendako jarduerak diru sarrerarik ez dutelako, epe labur eta ertainean duten egoera ekonomikoari larriki eraginez. Horrek sortzen duen kezka handia ulertuta, beharrezkotzat jotzen da Lantarongo Udalak ezohiko neurri batzuk ezartzea, osasun krisiak eragingo duen kalte ekonomikoa ahal den neurrian arintzeko eta haren jarduerak jarraipena izan dezaten.

Horregatik, Lantarongo Udalak, ekonomia eta gizarte garapenaren esparruan dituen esku-menak baliatuz, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 17. artikuluan ezartzen den bezala, premiazko neurri gisa jartzen ditu martxan laguntza horiek.

1. artikulua. Laguntza deialdiaren helburua

Deialdiaren helburua da udalerriko langile autonomoei laguntza ematea, osasun krisia kudeatzeko alarma egoera deklaratu zuen errege dekretuaren ondorioz autonomoek establezimenduak eta jarduerak itxita izan dituzten bitartean pairatu duten diru sarrera falta arintzeko eta itxita egoteko nahitaezko aldi hori bukatzen denean jarduera ekonomikoa ahalik eta azkarren berrabiarazteko.

Horretarako, aldizkakoak ez diren baliabide ekonomiko publikoak emango dira hurrengo urteetarako, eta 2020ko aurrekontuaren kargura soilik. Nolanahi ere, egungo alarma egoera luzatzen bada, hurrengo urteetan helburu bera edo antzekoa duten beste dirulaguntza batzuetarako deialdia egiteko aukera egongo da.

Alarma egoera onestearen ondorio zuzenak izango dira laguntzaren xede, honako ondorio tasatuen zerrendan oinarrituta:

Aurrez aurreko jarduera eteteko edo saltokiak, tabernak, jatetxeak, gizarte zentroak, landetxeak eta gainerako establezimenduak jendearentzat itxita izateko aginduak eragindako galera ekonomikoak, nahitaezko itxierak irauten duen bitartean.

Ez-funtsezkoak edo funtsezkoak diren jardueren barruan egoteagatik ondasunak edo zerbitzuak ekoiztea edo egitea erabat edo partzialki geldiarazi edo eten behar izateagatik sortutako galera ekonomikoak konpentsatzea.

Birusa zabaltzea eta kutsatzea saihesteko babes materiala erosteagatik sortutako gastuak, hala nola maskarak, babes itxiturak, gelak eta jarduera egiten den lokalen desinfekzioa, jendearentzako arretarako ezarritako neurriek eragindakoak eta mugatuak .

Ez dira diruz lagunduko alarma egoera indarrean jarri aurretik sortu diren ondorioak.

Laguntzak emateko prozedura interesdunak eskatuta hasiko da beti, deialdia egin ondoren, eta konkurrentzia ez lehiakorraren araubidean izapidetu eta ebatziko da. Ez da beharrezkoa izango eskaeren arteko konparazioa egitea, ez eta lehentasun hurrenkera zehaztea ere, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean adierazitako printzipio hauek bermatuz: publizitatea, lehia, gardentasuna, objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza, efikazia eta efizientzia.

2. artikulua. Baliabide ekonomikoak

Laguntzen 2020ko aurrekontu kreditua 439.471001 da, eta deialdiko dirulaguntzen zenbatekoa guztira hirurogeita hamar mila (70.000,00) eurokoa da. Aurreikusitako zenbateko hori aurrekontua aldatzeko eta lege zuzenaren aurreikusitako moduan onetsitako kasuan kasuko espedientearen bidez handitu ahal izango da.

3. artikulua. Onuradunak

Lantarongo udalerrian jarduera ekonomikoa gauzatzen duten banakako enpresaburuek eta profesional autonomoek jaso ahal izango dituzte laguntza horiek, baldintza hauek betetzen badituzte:

– Gizarte Segurantzako Norberaren Konturako Langileen edo Autonomoen Araubide Bezean alta emanda egotea eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.

– Lantaron udalerrian erroldatuta egotea 2020ko martxoaren 14a baino lehen.

– Lantarongo Udalaren jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta emanda egotea (ofizioz egiaztatuko da), edo, hala badagokio, Lantarongo sozietatearen izena edo lantokia egiaztatzea, udalerrian bere jarduera garatuz.

– Eskatzaileak egunean izan behar ditu zerga betebeharrak Lantarongo Udalarekin (ofizioz egiaztatuko da).

4. artikulua. Laguntzen zenbatekoa

3 laguntza lerro ezarri dira:

1. Alarma Egoeraren Errege Lege Dekretuaren bidez jarduera etenda izan duten autonomoek 283,31 euroko laguntza izango dute hilean, edo nahitaezko itxierak irauten duen egunekin proportzionala den zenbatekoa, jarduera ahalik eta gehien berrabiarazi arte.

Errege dekretuaren bidez jarduera etenda ez dutenentzat, eta jarduera funtsezkoa ez bada, 141,66 euroko laguntza izango dute.

Bi kasuetan, ordainketa bakarria egingo da onuradun izateko baldintzak betetzen dituzten eskatzaile guztientzat, aurrez aurreko jarduera edo jendearentzat irekita egoten den jarduera eteteak eragindako inpaktu ekonomikoa arintzeko.

2. 1. artikuluan adierazitako jardueren titularrei eragindako gastuen zenbatekoaren ehuneko 85eko laguntza, baldin eta 3. artikuluan ezarritako baldintzetan laguntzak jasotzeko aukera

badute. Horien barruan sartzen dira enpresaburuak eta profesional autonomoak, baldin eta etenda geratu ez diren jarduerak egin arren, jarduera horiek egitean jendearentzako arretarako ezarritako neurrien eragina eta mugak izan badituzte birusa hedatzea eta kutsatzea saihesteko babes materiala erosi behar izateagatik, hala nola maskarak, jarduera egiten den lokaletako babes itxiturak, gelak eta desinfekzioa, eta emango zaien laguntzak 500 euroko muga izango du jarduera bakoitzeko.

3. Landa etxearen jarduera gauzatzen den higiezinari dagokion hipoteka maileguaren interesen ehuneko 80ko laguntza, bai eta dagokion jardueraren erabilera eskusiborako lokalena ere (ez beste higiezin baten parte direnean), jarduera etenda dagoen aldian sortutakoak badira, 3.000 euroko mugarekin jarduera bakoitzeko.

5. artikulua. Eskaerak, agiriak eta epea

1. Eredu ofizialarekin (Eranskina) bat etorriko dira eskaerak eta Lantarongo Udalaren Erregistroan aurkeztu beharko dira; halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16. artikuluan adierazitako edozein bide erabili ahalko da eskaerak aurkezteko.

2. Eskaerarekin batera honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

- Pertsona juridiko edo fisikoen egiaztagiria: IFK edo NANA (fotokopia)
- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela frogatzen duten egiaztagiria.
- Banku kontuaren titulartasun ziurtagiria
- Ezarritako nahitaezko itxiera aldia amaitu eta hilabeteko epean jarduerari berriro ekin zaiola egiaztatzea, behar bezala frogatutako osasun arrazoiengatik izan ezik, egokiak diren bitartekoak erabilita, jarduera mantentzeko erantzukizunpeko adierazpena barne.

2.1. Babes materiala erosteko laguntzetarako, gainera, sortutako gastuen faktura eta horren ordainagiria aurkeztu beharko dira.

2.2. Hipoteka maileguetarako laguntzetarako, gainera, finantza erakundeak emandako agiria aurkeztu beharko da, jarduera etenda egon den aldian sortutako hipoteka maileguaren interesak egiaztatzen dituen.

3. Dirulaguntza eskatzen dutenek ez badituzte betetzen oinarri hauetan eskatutako baldintzak, edo nahitaezko dokumentazioa aurkezten ez bada, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 71. artikuluan xedatutakoari jarraituz, interesdunei dei egingo zaie, 10 egun balioduneko epean huts egiteak zuzendu edo nahitaezko agiriak aurkez ditzaten. Halaber, jakinaraziko zaie ezen, halakorik egin ezean, beren eskaera atzera botako dela, aurretik dagokion ebazpena emanda, 39/2015 Legeak 21. artikuluan ezarritakoaren arabera.

4. Eskaerak aurkezteko epea oinarrien deialdiaren laburpena ALHAOn argitaratu ondorengo egunean hasiko da, eta 2020ko urriaren 31n amaituko da. Epez kanpo aurkeztutako eskabideak ez dira izapidetzeko onartuko, gaiaren mamian sartu gabe.

5. Ebazpena emateko eta jakinarazteko epea 3 hilabetekoa izango da, espedientea garatzeko eskatzen den dokumentazio guztia udalean aurkezten den unetik kontatzen hasita. Epe hori igarota eskaerak ebazpen adierazirik ez badute, administrazio isiltasun bidez ezetsi direla ulertu ahal izango da.

Prozeduraren ebazpena interesdunei jakinarazi behar zaie, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 40. artikulutik 46.enera aurreikusitakoaren arabera.

6. Lantarongo Udalak argitara emango ditu emandako laguntzak, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 387/2003 Lege Orokorraren 18. artikuluan ezarritakoaren arabera.

6. artikulua. Dirulaguntza ordaintzeko era

Dirulaguntza eman ondoren, ordainketa bakarra egingo zaie onuradunei dirulaguntza ordaintzeko, haiek adierazi duten kontuan.

7. artikulua. Prozedura ebaztea

Udalaren Informazio Batzordeak aztertuko ditu eskaerak, eta irizpena emango du, gero ebazpen proposamena emateko. Aurkeztutako eskaerak onartzeko edo ukatzeko ebazpena Udaleko Alkatetzak emango du.

8. artikulua. Laguntzak justifikatzea

1. Laguntzen pertsona onuradunek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte gehienez ere 2020ko abenduaren 31rako:

- Langile Autonomoen Araubide Berezian norberaren konturako langile gisa kotizatzeari dagozkion kuotak ordaindu izanaren egiaztatzea, alarma egoeraren aldiari eta egoera hori amaitu ondorengo bi hilabetei dagozkienak.

Ordainketak egiaztatzeko, dagokion kargua jasotzen duen banku laburpenaren fotokopia aurkeztu beharko da, edo finantza erakundeak emandako ziurtagiria, edo ordainketa hori justifikatzen duen beste edozein agiri.

2. Justifikatutako zenbatekoa emandako dirulaguntza baino txikiagoa bada, doitu egingo da, eta, hala badagokio, aldea itzuli egin beharko da.

3. Dirulaguntza ez bada aurreikusitako epeetan justifikatzen, emandako dirulaguntza osoa itzuli beharko da; beraz, aurreko atalean aurreikusitako justifikazio epeak igaro eta justifikaziorik egin ez bada, dagokion prozedura hasiko da jasotako zenbatekoa itzultzeko betebeharrak deklaratzeko, aldeztu aurretik errekerimendua eginda.

9. artikulua. Onuradunen betebeharrak

Onuradunen betebeharrak dira, oro har, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14.1 eta 46. artikuluetan ezarritakoak, eta, bereziki, honako hauek:

a) Egiaztatzea baldintzak betetzen dituela eta dirulaguntza emateko eta hartaz gozatzeko oinarri izan den jarduerara egin duela.

b) Eta dirulaguntza emateko kontuan hartu den edozein baldintza subjektibo zein objektibo aldatu bada, udalari eman beharko zaio aldaketaren berri.

c) Diruz lagundutako jardueren xedeari nabarmen eragiten dion edozein gorabeheraren berri ematea.

10. artikulua. Beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna

Laguntza hauek bateragarriak izango dira beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuetatik datozen helburu bereko beste edozein dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabiderekina.

Udal dirulaguntza horien onuradunek jakin behar dute laguntza horiek bateraezinak izan daitezkeela beste administrazio edo erakunde publiko batzuek ematen dituztenekin, eta, hala badagokio, onuragarritzat jotzen dutena aukeratu ahal izango dutela.

11. artikulua. Arau hausteak eta emandako dirulaguntzak itzultzea

Dirulaguntzen arloko arau hauste eta zehapenei dagokienez, osorik aplikatuko dira Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrak IV. Tituluan jasotako arauak eta haren arautegia onetsi zuen 887/2006 Errege Dekretuak IV. tituluan xedatutakoa.

12. artikulua. Araudi aplikagarria

Oinarri hauetan xedatu ez den guztian, 38/2003 Legean, haren arautegian eta Lantarongo Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorrean xedatutakoa hartuko da kontuan.

ERANSKINA

Eskaera

EZOHIKO LAGUNTZEN ESKAERA COVID-19K ERAGINDAKO OSASUN KRISIA
KUDEATZEKO ALARMA EGOERA DEKLARATZEAREN ONDORIOZ JARDUERAK ETENDA
DITUZTEN NORBERAREN KONTURAKO LANGILEENTZAT EDO AUTONOMOENTZAT

ESKATZAILEAREN IDENTIFIKAZIO DATUAK

Izena:

Abizenak:

IFZ/NAN:

Helbidea: Kalea:

Herria.....

Harremanetarako telefonoa:

Helbide elektronikoa:

LANTARONGO UDALEAN EGITEN DUEN JARDUERA EKONOMIKOA

.....

.....

SOZIETATEAREN IZENA:

JAKINARAZPENETARAKO DATUAK

Helbidea:

Kalea:

Herria.....

Harremanetarako telefonoa:.....

Helbide elektronikoa:.....

AURKEZTUTAKO AGIRIAK

- Pertsona juridiko edo fisikoen egiaztagiria: IFK edo NANA (fotokopia)
- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela frogatzen duten egiaztagiriak.
- Banku kontuaren titulartasun ziurtagiria
- Ezarritako nahitaezko itxiera aldia amaitu eta hilabeteko epean jarduerari berriro ekin zaiola egiaztatzea, behar bezala frogatutako osasun arrazoiengatik izan ezik, egokiak diren bitartekoak erabilita, jarduera mantentzeko erantzukizunpeko adierazpena barne.

Babes materiala erosteko laguntzetarako, gainera, sortutako gastuen faktura eta horren ordainagiria aurkeztu beharko dira.

Hipoteka maileguetarako laguntzetarako, gainera, finantza erakundeak emandako agiria aurkeztu beharko da, jarduera etenda egon den aldian sortutako hipoteka maileguaren interesak egiaztatzen dituen.

....., 2020ko-(a) rena

Sinadura

Komunioi, 2020ko maiatzaren 28a

Alkatea

JAVIER URIARTE JAIRO